



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

D. 2006-2009ko ETXEBIZITZA BIDERATZEKO PLANAREN ARAU EDUKIA

- Planaren aurreikuspenentzat egokia den arau-esparru bat eratu eta aurreikuspen horiek osatze aldera, eta behin ekainaren 30eko EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legea onartu ondoren, beste arau-eduki batzuk daude aurreikusita, eta Etxebizitza Babestuari buruzko Legea nabarmentzen da horien artean.
- Honako hedadura hau izango du Etxebizitza Babestuari buruzko Legeak:
 - administrazio publiko eskudunak etxebizitza-arloan;
 - etxebizitzari buruzko politika publikoen plangintza eta programazioa;
 - etxebizitzaren euskal zerbitzu publikoa;
 - hiri-solidaritatea eta gizarte-kohesioa;
 - etxebizitza babestuen erregimena;
 - etxebizitza babestuaren parkeak gizarte-erabilera egokia izateko berme juridikoak;
 - birgaitzearen sustapena;
 - etxebizitza parkearen gizartearen aurkako erabilera;
 - kontsumitzaileen bermeak etxebizitza-arloan;
 - etxebizitza-parkearen ingurumen-iraunkortasuna;
 - estatistika etxebizitza-arloan.
- Gainerako arau-garapenei dagokienez, bereziki biltzen dira Plana etxebizitza babestuari eta birgaitzeari buruzko dekretu eta aginduetara eguneratu eta egokitzea, eta etxebizitza babestua diseinatzeari buruzko ordenantzak eguneratzea, 2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Planaren helburuak betetzen direla bermatzeko beharrezko irizten diren gainerako arau osagarriak lantzeko aukera alde batera utzita.



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila